

Tupper GAHM ideia sortu zen irakaskuntza, gizarte eta kirol animazioko ikasleak garelako eta gure klasean osasuna oso presente daukagu, denbora guztian lekuetatik mugitzen ari gara eta batzuetan ez gara etxetik pasatzen bazkaltzeko, horregatik tuper errazak erabiltzen ditugu. Gainera, kirolariak garenez, zaindu egin behar dugu geure burua, eta, horretarako, kontuan hartzen dugu zenbat karbohidrato, proteina, gantz eta kaloria dauzkagun otordu bakoitzean.

Gure ideia Tupper 001 izena du, gure lehenengo drop-a izango delako, gero Tupper 002 aterako da eta horrela merkatuan hazten lagunduko digun behin betiko tupper-a izan arte.

Bestalde, uste dugu gure ideia oso funtzionala dela, jendeak elikadura hobe izango duelako eta, horrekin batera, osasun eta ongizate hobe. Ez genieke gaixotasunei edo bihotzekoei beldurrik izan behar elikadura txarra izateagatik; beraz, gure tupper-ari esker, kirolariei eta osasuntsuei laguntzeaz gain, osasun- eta elikadura-arazoak dituztenei ere lagunduko diegu. Halaber, kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu elikagaien kantitatez eta kalitateaz jabetzen zarelako.

Ingurumenarekin dugun konpromisoa erabatekoa da. Izan ere, material birziklatuekin tupper-ak egiteko ideia izan dugu, garbitasuna eta birziklapena sustatzeko. Honekin, birziklapena guk adina kontuan hartzen duten enpresez inguratu nahiko genuke.